

txintxarri



Izar Beltzak gogoratzeko festa

Bosgarren oroimenezkoa egin dute
Atsobakar kirol guneko zelaian / 12

Lasarte-Orian errugbiaren alde lana egin zutenak omentzea oinarri izan zuen oroimenezkoak, baita ukitu exotikoa ere: dantza polinesiarrek erakutsi zituen Erreteriatik etorritako Hoku-Kai taldeak. TXINTXARRI

GIZARTEA

Teresa Sorgiñari ongietorri ederra egingo diote Zabaleta auzoan; hasi dira festak / 2



TXINTXARRI

GIZARTEA

San Pedro Jaietako omendua nor izango den iragarri du udalak: Lasarte-Oriako Gurutze Gorria / 3

POLITIKA

Orain arte egindakoa eta etorkizuneko lana uztartuko dituen batzoki berria inauguratu du EAjk / 5

POLITIKA

IV. Kongresua amaituta, datorrenari heltzeko eta lan egiteko gogotsu daude Ernaiko kideak / 9

MÓ 189€

erreflexuen aurkako
betaurreko progresiboak



MULTIÓPTICAS

943 37 74 55
Kale Nagusia, 15.
LASARTE-ORIA



hitzordua
eskatu



Kontsaltatu optikan kanpainaren ezaugarriak.

www.multiópticas.com



R.P.S. 93/25

GIZARTEA

Teresa Sorgiña iristeko zain, festez gogotik gozatzan ari dira Zabaletan

Auzoaren zaindaria gaur jaitsiko da plazara, hilak 5, 18:45ean. Ailegatzen denean ez ditu herritarrak hotz harrapatuko, asteartetik ari baitira jaiak ikusi, entzun, usaindu eta dastatzen

Lierni Apaolaza Urdanpileta

Gaztetxoak izan dira Zabaleta-ko festetako aurreneko egunetako protagonistak. Hilaren 2an txupinazoa jaurti eta pregoia irakurri zuten: oholtzara igo, ilaran jarri eta elkarrekin prestatutako testua irakurri zuten aurreko uneetako urduritasuna ederki gaindituta. Egitarauko ekimenez gozatzeko deia egin zieten auzotar guztiei eta baita herriko beste toki batzuetatik igotakoei ere.

Bitartean, egunotan (eta jaiak amaitu ostean ere bai) janzteko moduko dozenaka kamiseta serigrafiatu zituzten Zabaleta Auzolan elkartearen logotipoarekin. Irudia, nola ez, gaur arratsaldean (hilak 5) auzora jaitsiko den Teresa Sorgiña da. Txupinazoaren ostean hasi zen Talentu Bila lehiaketa eta inolako lotsarik gabe igo ziren oholtzara gainera

etxeko txikienak, bakarka zein taldeka. Emanaldi ederrak egin zituzten guztiek.

Erakustaldia bukatuta goxorraketeekin jaurtitako gozokiak bildu zituzten eta buruhandien-gandik ihesi lasterka ibili ziren. Bitartean, helduek festetako dantzak gogoratu zituzten txosnaren bueltan.

Zabaletako festak ez direnez betikoak euririk gabe, hurrengo egunetako eguraldi iragarpena begiratu eta apar festa asteazkenera aurreratzea erabaki zuten antolatzaileek: bete-beteen asmatu zuten, haurrek ederki pasa zutelako eguzkipean.

Lehen esan bezala, Teresari gaur egingo diote ongietorri beroa auzoan eta astebururako prestatutako egitarauari ekingo diote. Jarduera horiek guztiak aldizkari honetako 15. orrian jaso ditugu, *Agenda* atalean.



Festek iraun bitartean (eta amaitu ostean ere bai) janzteko moduko kamiseta asko serigrafiatu zituzten. TXINTXARRI



Festetako pregoia irakurtzeko prestatu ziren gaztetxoak. Urduritasunari aurre eginda, ederki aritu ziren denak. TXINTXARRI



Talentu Bila lehiaketa. TXINTXARRI



Goxorraketeekin jaurtitako gozokiak harrapatu nahian. TXINTXARRI



Apar festa asteazkenera aurreratuta, bete-beteen asmatu zuten. TXINTXARRI



Buruhandiak izatera jostatzen. TXINTXARRI



Pintxo goxoak eta edari freskoak zerbitzatzen ari dira txosnan. TXINTXARRI

Txintxarri

Hiru aste falta dira (gaurko data kontuan izanda, hilak 5) San Pedro Jaietarako eta horri lotutako bi konturen berri eman dute berriki udal ordezkariak: batetik, Lasarte-Oriako Gurutze Gorria eragileko boluntarioei egingo dietela aitortza; eta bestetik, Jesus Garcia Vivar ilustratzaile burgostarraren *Intxisu txupinazoa* kartela izango dela festetako irudia, besteak beste, ekimenen programa ilustratuko duelako.

Omendua aukeratzea "lan zaila" dela aitortu dute Agustin Valdivia alkateak eta Jaiak departamentuko zinegotzi Txus Alonsok. Parte hartze prozesuaren bidez 62 proposamen jaso zituzten eta horietatik hamabost eraman zituzten udal gobernu-kideen bilerara, azken erabakia hartzeko. Hori horrela, 42 urteko ibilbidea (1984ko maiatzean hasi ziren lanean) duen eragilea aintzatetsiko dute: "Lau hamarkada baino gehiagoz udalerriko bizitzaren parte izan den erakundearen jarduna aitortuko dugu", jakinarazi dute. Gaur-gaurkoz 50 bat lagunek osatzen dute taldea eta herritar askok festetan, kirol ekitaldietan edo topaketa jendetsuetan parte hartzeagatik ezagutzen dituzte, nahiz eta euren lanaren zati handi bat "fokuetatik urrun" burutzen duten, gizarte esparruan hain zuzen ere. "Komunitate gisa definitzen gaituzten balioak ordezkatzeko dituzte: elkartasuna, konpromisoa eta zerbitzua", nabarmendu du Valdiviak.

Jakinarazpena "pozarren" hartu dutela zehaztu dute Alonsok eta Valdiviak. Gauzak horrela, hilaren 26ko helduen txupinazoa jaurtiko dute udal-letxe berriko balkoitik, 19:00etan. Bi egun geroago, eguerdian,



Txus Alonso eta Agustin Valdivia, 'Intxisu txupinazoa' kartel irabazlea eskuetan dutela. TXINTXARRI

GIZARTEA

Lasarte-Oriako Gurutze Gorria omenduko dute San Pedro Jaietan

Festetako programa ilustratuko duen afixa irabazlea ere iragarri dute udal ordezkariak: Jesus Vivar Garcia burgostarraren 'Intxisu txupinazoa' lanaren alde deliberatu dute epaimahaiko kideek. 600 euro jasoko ditu egileak

kultur etxeko auditorioan, omenaldi instituzionala jasoko dute boluntarioek.

'Intxisu txupinazoa'

Agerraldi berbera baliatu dute jakinarazteko Jesus Garcia Vi-

var burgostarrak egindako *Intxisu txupinazoa* afixak irabazi duela lehiaketa. Hori horrela izanik, "laster" aurkeztuko duten sanpedroetako jarduera programa ilustratuko du. Alonsok azaldu duenez, 31 lan jaso zituz-

ten eta "herriko kide profesionalak" osatutako epaimahaiari eman zizkioten, eurek delibera zezaten. "Aurreneko aldiz hautagaien proposamenak aztertu ostean zortzi aukeratu zituzten eta horien artean beherala izan

Omenduak, urtez urte

Hauek izan dira azken urteetako jaietan aitortza jaso duten eragile eta norbanakoak:

- **2019** Aterpea merkatarien elkarte.
- **2022** Nagusilan elkarte.
- **2023** Txema Valles, *El Diario Vasco* egunkarioko herriko kronikaria.
- **2024** Makelur antzerki taldea.
- **2025** Urrezko Neskak herritar taldea.
- **2026** Lasarte-Oriako Gurutze Gorria.

zuten garbi Vivarrena zela irabazlea". 600 euroko saria jasoko du egileak.

Lan horretan sanpedroetako ekimen sinbolikoenetako bat da protagonista: txupinazoa eta, batez ere, zerurantz igo eta ez-tanda egitear den suziria. Arte-faktu horri erreparatuz gero, Sorgin Dantzako jantziekin apaindutakoa dela jabetuko dira herritarrek. Behealdean Okendo plaza eta herri erdiguneko beste zenbait toki ikusten dira, baita enparantza lepo bete duten bizilagunak ere.

Gurutze Gorriaren "elkartasuna, konpromisoa eta zerbitzua" goraiatu ditu udal gobernuak



XXXIV. BATZAR NAGUSIAREN BILKURA

Ttakun Kultur Elkartean XXXIV. Batzar Nagusiaren bilkurara gonbidatu nahi zaituztegu:

Eguna: 2026ko ekainaren 17an, asteazkena.
Ordua: 18:00etan lehen deialdia eta beharrezko bazkideen herena bilduko ez balitz, 18:30ean bigarren deialdia.
Lekua: Ttakunenea.

XXXIV. Batzar Nagusiko gai zerrenda honakoa izango da:

1. Lehendakariaren agurra
2. 2025ean egindakoaren balorazioa
3. 2025eko diru kontuen azalpena
4. 2026rako egitasmoak
5. 2026ko aurrekontua
6. Eskaerak eta galderak
7. Mokadutxoa

Bazkideren batek gairen bat proposatu nahi badu, ekainaren 9 izango da horretarako azken eguna. Proposamena idatziz aurkeztu beharko du ttakun@ttakun.eus helbidera bidaliaz edo ttakunera ekarriaz. Eskertuko dugu batzarre-rako asistentzia konfirmatzea ttakun@ttakun.eus helbidera idatziaz edo bulegora deituz.

Ttakun Kultur Elkarteko Zuzendaritza Batzordea Lasarte-Oria, 2026ko ekainaren 3an

ENTSEGUAK

SORGIN DANTZA

EGUNAK
EKAINAK 2, 4, 9, 11, 16 eta 18

ORDUA
20:00ETATIK 21:00ETARA

LEKUA
Okendo plazan. Eguraldi txarra eginez gero Oriarte Landaberri ikastetxeko estalkian.

2026/06/26

LASARTE-ORIA
SAN PEDRO JAIK

EKONOMIA

Erantzukizun pertsonaletik abiatuta, laneko ongizatea hobetu nahi dute

Hilaren 8an, 11n eta 15ean egingo dituzte ikastaroko saioak Antonio Mercero aretoan, 16:00etatik 19:00etara. Bederatzi orduko aurrez aurreko lana egingo dute partaideek. Udalak eta Beterri-Buruntza Mankomunitateak antolatu dute

Txintxarri

Laneko ongizatea erantzukizun pertsonaletik abiatuta egitasmoa aurkeztu dute Lasarte-Oriako Udaleko Sozioekonomia zinegotzi Nuria Fernandezek eta Beterri-Buruntza Mankomunitateko enplegu dinamizazioko teknikari Loinaz Etxanizek. Biek ala biek azpimarratu dutenez, ekimenaren helburua da baliabide pertsonalak, emozionalak eta harremanetakoak garatu bitartean langile eta langabetuen ongizate laborala hobetzea.

Horretara bideratutako ikastaroa hilaren 8an, 11n eta 15ean aurrera eramango dutela jakinarazi dute, Antonio Mercero aretoan, 16:00etatik 19:00etara. "Parte hartzaileek bederatzi orduko aurrez aurreko lana egingo dute eta lan errealitateari osasungarriago, kontzientzeari eta jasangarriago aurre egiteko tresna praktikoak eskuratuko dituzte", azaldu du Fernandezek. Gehitu du lan ongizatea "oso faktore garrantzitsua" dela pertsonen bizi kalitatean, baita euren garapen profesionalean ere. "Udaletik eta mankomunitatetik, eskura ditugun tresnen bidez, alor horretako erronkei ikuspegi praktiko zein



Loinaz Etxaniz eta Nuria Fernandez, ikastaroaren berri ematen. LASARTE-ORIAKO UDALA



Konektatuz-eko mahai inguruko partaideak eta ordezkari politikoak. BETERRI-BURUNTZA

EKONOMIA

Udaberriko Festan zehar herrian erosi izanagatik saritu dituzte

Txintxarri

Hitzorduarekin hasteko, lehenik eta behin, eskerrak eman zizkieten lasarteoriarrei elkarrekideek beste behin kanpainari egindako harrera beroagatik; besteak beste, parrilla jan jendetsua eta txu-txu trenan nabarmendu zituzten. Makina bat herritarrek parte hartu dutela zehaztu zuten, eta hori ez ezik,

euren arabera, herria aktibatua duela ekimenak. Hori dela-eta, sasoa "fina" izan dela baloratu zuten. Era berean, parte hartutako komertzioei luzatu zieten esker ona.

Jarraian, sari banaketari ekin zioten. Bost sari banatu zituzten: 250 euroko lau bonu eta 500 euroko bakarra. Hilaren 21era arte izango dute erabil-

tzeko epea Aterpeako bazkide diren saltokietan. Hauek izan dira sarituak: Naiara Gomez Tamayo, Jose Miguel Urtizbera Garmendia, Jose Luis Carrillo Tena, Diego Torres Sanchez (250 euro poltsikoratu ditu horietako bakoitzak) eta Maribel Sanchez (500 euro). Udaleko zein merkatarien elkarteko ordezkariak eman zizkieten gutunazalak eta pozarren jaso zituzten bezeroek. Elkar agurtu aurretik, talde argazkia atera zuten Urruzola mertzerian, atarian.

positibo batetik aurre egiteko tresna baliagarriak eman nahi dizkiegu herritarrei".

Etxanizek nabarmendu duenez, ongizate laboralaren gaian "formakuntza falta eta beharra" dektatu dituzte: "Horregatik antolatu dugu formakuntza ikastarora, parte hartzen dutenei lagunduko diena egunerokotasunari, motibazioari, kargari, garapen pertsonalari... aurre egiten". Ildo horretatik, adierazi du "funtsezko elementua" dela lantaldearen osasunerako eta errendimendurako, baita erakundeen jasangarritasunerako ere.

Aipatu programa hori hiru bloketan egituratuko dute. Aurreneko saioa autoezagutzan eta ongizatean oinarrituko dute, ohituek lan osasunean nola eragiten duten aztertuta. Hurrengoan emozioen kudeaketa eta estresa jorratuko dituzte, arreta eta erregulazio emozionala hobetzeko tresnak emanda. Hirugarrenean, aldiz, pertsonen arteko harremani erreparatuko diete: "Lanaren zentzuari eta konpromisoari buruzkoa izango da, denboran iraungo duen ongizatea bultzatzeko helburuarekin", jakinarazi du Etxanizek.

munitatearen, Laboral Kutxaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin. Antolatzaileek eskerrak eman zizkieten laguntzaileei eta parte hartzaileei, jardunaldia "inspiratzailea eta aberasgarria" izan zelako.

Nerea Basurto Arraztiok moderatu zuen solasaldia eta eskualdean erreferente diren sei emakume solastatu ziren: Eider Manso Garmendia, Bexen Medical eta Ferdoux Estructuras enpresetako pertsonen garapen eta ongizatearen kudeatzailea; Maria Magdalena Fernandez, Magdassudio eta Neboa Home-ren sortzailea; Maria Herrero Eizmendi, HERREKOREko kudeatzailea; Norexix Carilin Norrellas Araujo, Chimeneas Erre Berri-ko bazkidea; Silbia Robson Goikoetxea, Laboral Kutxak Hernanin duen bulegoko zuzendaria; eta Sonia Valor Cuadrado, Baihome Higiezin Zerbizuen sortzailea. Gai ugari izan zituzten hizpide, hala nola ondorengotza prozesua, ekintzailetasuna, industria enpresa familiarren ondorengotza, talentuaren ongizatea, industrian berrikuntza edota migrazio prozesu baten ostean gure lurraldean integratzea.

Lan ongizatea "oso faktore garrantzitsua" da pertsonen bizi kalitatean

Eskualdeko emakumeen lidergo eta talentuaz aritu dira Konektatuz topaketan

Eskualdeko emakumeen talentua Beterri-Buruntzako emakumeen lidergoari, ekintzailtzari eta talentuari buruz hausnartu zuten 70 pertsonak baino gehiagok Konektatuz topaketaren aurten go edizioan, Astigarragan, maiatzaren 21ean. Eskualde horretako sei pertsonak parte hartu zuten mahai inguruan eta euren ibilbide profesionalez, erronkez eta bakoitzaren ikuspegiak mintzatu ziren, besteak beste.

ASPEGI Gipuzkoako Emakume Profesional eta Enpresarien Elkartek antolatu zuen jarduera hori Beterri-Buruntza Manko-



Urruzola mertzerian egin dute sari banaketa ekitaldia. TXINTXARRI



Lasarte-Oriako batzokiaren historiari buruz aritu zen Estitxu Alkorta. TXINTXARRI



Ikurrina igotzen hastear. TXINTXARRI



Batzoki barrualdea ezagutu zuten hala nahi izan zutenek. TXINTXARRI



Euge Arrizabalaga. TXINTXARRI



Aitor Esteban. TXINTXARRI



EAJko ordezkari politikoek eta irekiera ekitaldian aitortza jaso zutenek talde argazkia atera zuten batzoki aurrean. TXINTXARRI

POLITIKA

Izan direna gogoratzeko eta izango direna eraikitzeko topalekua ireki dute

"Urte askotako lanaren eta bidearen ospakizuna" egin dute jeltzaleek Hipodromo etorbideko egoitza inauguratu berriaren bueltan. Luis Mari Ansa, Mari Jose Egurza eta Juan Mari Alkorta zena ere omendu dituzte

Iñigo Gonzalez Sarobe

1932ko uztailaren 17an ireki zuten Lasarteko EAJren batzokia. Ia 94 urte geroago, jeltzaleen eta eurengana bertaratu nahi duten herritarren topaleku berria inauguratu dute, Hipodromo etorbidean. Joan den asteko larunbatean aurrera eraman zuten jarduera, maiatzaren 30ean. "Gaurkoa ez da ekitaldi soil bat, aitortza eguna izatea nahi dugu: garai zail eta nahasietan, konpromiso eta isilean egindako lana balioan jartzeko", nabarmendu zuen Lasarte-Oriako

EAJko buru Estitxu Alkortak. "Gorabehera asko izan ditu alderdiak historian zehar, batez ere, zatiketaren ostean berrekitzerakoan", gehitu zuen. Une horietan ardura hartu eta lan "eskerga" egin zuten alderdikideak omendu zituzten segidan: Luis Mari Ansa, Mari Jose Egurza eta Juan Mari Alkorta zena. Duela bi hilabete hildako aitaren izena esan zuenean beziki hunkitu zen alaba, Estitxu bera. Horrez gain, zendutako Manolo Arroyo afiliatua gogoratu zuten.

Ansa, Egurza eta Alkortaren alarguna altzarazi zituzten segidan, batzoki alboko ikurrina altxatzeraz. Horien ostean, lore sorta bana eman zieten Alkortak, Arrizabalagak eta Estebanek. Jarraian, Aurrekua dantzatu zieten. Horren ostean, Alkortak azaldu zuen "ibilbide luzea" duela Lasarte-Oriako alderdiak: "1930ean sortu zuten Lasarte eta Oriako Uri Buru Batzarra". Ibilbide historiko horren mugarri gehiago azaldu ondotik, aurten goa "oso urte berezia" dela adierazi zuen, "udalerraren norta-

suna finkatu" zuten bi gertakari duela lau hamarkada jazo zirelako: "Lasarte-Oria udalerrin independente gisa eratu zuteneko eta aurreneko Euskararen Maratoiaren 40. urteurrena da".

Arrizabalagari eta Estebani hitza eman aurretik, etorkizunera begiratu zuen Lasarte-Oriako EAJko buruak: "Beldurrik gabe hurbiltzera animatzen zaituztet, batez ere belaunaldi berrietako kide zaretenoi: ekarpenak egitea, ideiak proposatzea eta ikuspegi kritikoz gauzak zalantzan jartzea beharrezkoa izango da aurrerantzean ere. Zuei dagokizue parte hartzea, zuen ideiak defendatzea eta gure herriaren etorkizuna eraikitzen jarraitzea".

Jeltzaleen "nortasuna, balioa eta indarra"

Alkortaren ostean Gipuzkoa Buru Batzarreko lehendakari Euge Arrizabalagak zein EAJren presidente Aitor Estebanek hartu zuten hitza, alderdi hori "Euskadi eta euskal nazioa" den bezalako eraikitzearen erantzule nagusia dela defendatzeko. "Nortasuna, balioa eta indarra" ere aldarrikatu zituzten: "Beste batzuek ez bezala lotsarik gabe begiratzen

diogu gure iraganari; badakigu nondik gatozen, nor garen eta nora goazen".

Euskal Herrian gaur-gaurkoz duten arerio politiko nabarmenena ere kritikatu zuten; EH Bildu, alegia. "Alderdi plurinazionala dela diote eta zer esan nahi du horrek? Ba euren begirada Espainiar Estatuan jarrita dutela, Pedro Sanchezen alboan. Gure markoa ez dago hor, Euskadin eta euskal nazioan baizik". Goiz horretan Bilbon izan zen PP alderdiarengan ere jarri zuten begirada: "Minutu batzuek gutxienez hitz egingo zuten gutaz eta gogor kritikatuko gintuzten. Eta nortzuegandik jaso behar ditugu ba kritika horiek? VOX alderdi ultrasukuindarrarekin batera gobernatzen ari diren horieganatik?".

Mitinak amaituta, talde argazkia atera zuten Estebanek, Arrizabalagak, omenduak izan ziren alderdikideek eta Lasarte-Oriako EAJko hiru zinegotziek. Horren ostean, batzoki inauguratu berriko atea ireki eta ekitaldira bertaratu zirenetako asko sartu ziren lokala ezagutzera. Ondoren, berriz ere irten eta mokadutxoan jan zuten.

KULTURA

Ikasturte amaierako emanaldiek bide emango diete San Joan bezperako jaiari

Kukukaren 24. Antzerki eta Dantza Astea hilaren 8tik 13ra arte egingo dute

Txintxarri

Herriko festak ospatzera bero-bero iritsiko dira lasarteoriatarak, udalak egun eta asteotarako antolatu dituen ekimenetan parte hartu eta gero (www.txintxarri.eus atari digitaleko Agenda atalean jaso ditugu guztiak). Kukukaren 24. Antzerki eta Dantza Astea, eragile ugariaren ikasturte amaierako emanaldiak eta San Joan bezperako ospakizuna dira nabarmenenak.

Zabaletako festak amaitu eta hurrengo egunean hasiko da Kukuka eskolako kideen 24. Antzerki eta Dantza Astea, hilaren 8an hain zuzen ere, astelehenarekin. Bi diziplina horiek kurso osoan zehar landu dituzten ikasleek prestatutakoa erakutsiko dute kultur etxeko ohol-tzan, hilaren 8tik 13ra. Egundako bakoitzeko emanaldiak doakoak izango dira. Horien ostean eta



Udaleko Kultura zinegotzi Aina Elicechea, Ama Brigitarren komentuan. TXINTXARRI

jarduera zein ikasturtea giro ederrean ixte aldera, datorren asteko larunbatean dantzaldia antolatu dute 17:30etik aurrera.

Eragile askok hilabete honetan itxiko dute ikasturtea, eta, horren aurretik, kontzertuak eta dantza

emanaldiak antolatu dituzte. Alboka Abesbatza izango da aurrenekoa: 13an ariko da Ama Brigitarren komentuan, 19:30etik aurrera. Hurrengo egunean, aldiz, Zero Sette Akordeoi Orkestrakoek joko dute Okendo plazan, 12:30ean.

Bestalde, Udal Musika Eskolako kideek bi kontzertu emango dituzte hilaren 16an eta 17an, kultur etxean. 19:00etan eta 18:30ean hasiko dira, hurrenez hurren. Eta biharamunean igoko dira areto horretako oholtzara Udal Dantza Eskolako ikasleak, 17:30ean. Azkenik, Erketz EDT dantza taldeko lagunek Okendo plazan erakutsiko dute aurten landutakoa, hilaren 20an, 19:00etik aurrera.

Liburu aurkezpena

Literaturak ere izango du tokia hilabete honetako agendan. Hori horrela, hilaren 18an *Zainetatik zilarra* poema liburua aurkeztuko du Nahia Intxausti idazle lasarteoriatarak, Antonio Mercero aretoan, 18:30ean. Zortzi egun lehenago kurtsoko azken solasaldi literarioa gidatuko du Monica Leivak: bertaratzen direnek Sandor Marai idazlearen *El último encuentro* eleberria landuko dute 18:00etatik 20:00etara, Udal Liburutegian.

Hileroko programazioetan horren ohikoak ez diren generoak ere badaude, hala nola bakarriketarena. *Y tú: ¿Tienes pueblo?* ikuskizuna ekarriko du Fran

bat dakar egitarauak: tekno-flamenko saioa.

Blancok azaldu zuenez, egitarauan "jende gaztea erakarriko duen emanaldi bat" txertatu nahi zuten, eta aurten larunbat arratsalde-gauean proposamen berria dakarte, tekno-flamenko saioa. "Probaturiko dugu, ea zer moduz doan".

Bere hizketaldia amaitzeko erromeria antolatzeko udalaren laguntza eta baimenak beharrezkoak izan direla aipatu eta horregatik eskerrak eman zizkion Semblanteko lehendakariak erakundeari.

Ainara Elicechea Kultura zinegotziak eskerrak bihurtu zizkion elkarteko ordezkariari: "Eskerrik asko Semblanteri, Lasarte-Oriara Andaluziako zati bat ekartzeagatik. Kultura eskaintza elkartearen lanarekin aberasten da eta lasarteoriatar guztiak horrelako ekimenez gozatzeko aukera dugu".

Azkenik, Semblanteko Andaluzeko kideek zein udal ordezkariak herritarrak gonbidatu zituzten hilaren 13an eta 14an Atsobakarreko parkera hurbildu eta erromerian Andaluziako giroan murgiltzera.

Txartelak

Kukuka eskolako kideek jakinarazi dutenez, 24. Antzerki eta Dantza Asteko azken egunean Okendo plazan bazkalduko dute, 14:00etan. Umeen txartelak 12 euro balio dute eta helduenek, aldiz, 15 euro. Otordura joan nahi dutenek Jalgi edo Ilargi tabernetara joan behar dute hilaren 10a baino lehen.

Pati umoristak herrira hilaren 13an. 19:00etan hasiko da emanaldi hori.

Bestalde, urteroko ohitura berri eta San Joan bezpera ospatuko dute hilaren 23an, 21:30etik aurrera. Erketz EDTko dantzariak eta udal korporazioko kideak udaletxe zaharretik Andatza plazara joango dira, kalejiran. Soka dantza eta beste saio batzuk egingo dituzte han, Zero Settek eta Albokak musikaz girotu bitartean. Ondoren, sua piztuko dute.

KULTURA

Andaluziako txoko bilakatuko da Atsobakar parkea, hilaren 13an eta 14an

31. Rocioko Erromeriak Andaluziako kolorez eta erritmoz beteko du parkea

Txintxarri

Kaxkarroko eskolatik Atsobakarreko parkera, ekitaldi txiki batetik herriari zabaltzera, egunpasatik asteburura. 31 urte igaro dira orduko lehendakari Jose Perez Acostaren eskutik lehen erromeria antolatu zenetik. Gerotik lez, hilaren 13an eta 14an, Atsobakar auzoko parkea andaluziar kolore, jantzi, doinu eta jakiez beteko da. Erromerian aurkezpena egin zuten, hilaren 4an, Semblante Andaluzeko kideek eta Ainara Elicechea Kultura zinegotziak elkarrearen egoitzan.

Carlos Blanco andaluziar elkarteko lehendakariak lehen urte horietako erromeria ekarri zuen gogora: "Kaxkarron egiteko baimena eman zuen udalak eta egunpasa egiten zen. Haraino erromerian joaten ziren, zaldiekin eta sardina jana egiten zen. Hasieran txikia zen jai,



Semblanteko ordezkariak eta kultura zinegotzia, aurkezpena. TXINTXARRI

gure artean egiten genuen, kideen artean. Eta gaur egun asko zabaldu da, beste elkarrekin eta erakundeetatik dator jendea".

Ohiko hitzordua bihurtu da herrian ekimena eta aurten ere ez du huts egingo: hilaren bi-

garren asteburuan antolatuko du Semblante Andaluzek, Lasarte-Oriako Udalaren laguntzaz.

Tekno-flamenkoa, berrikuntza "Betiko jarduera, emanaldi eta dantza saioez" gain, berrikuntza

HEZKUNTZA

Mende Erdiko ibilbide osparoa ospatu dute elkarrekin



Ospakizun ekimenetako bat. ZUBIETA LE

Zubieta Lanbide Eskolak 50. urteurrena ospatu zuen maiatzaren 30ean. Ikasle ohiak, langile ohiak, egungo estudiante eta langileak, familiak eta herritarrak elkartu ziren.

1975ean Aginagako parrokiako lokaletan, ia auzolanean sortutako eskola hark gaur egun ia 500 ikasle dituen erreferentziatzko zentro bihurtzea lortu du. Azken urteetan berrikuntza proiektu ugari garatu ditu, nazioarteko sareetan parte hartu du eta Europako hainbat herrialdeetan eza-guna den Lanbide Heziketako zentro bilakatu da.

POLITIKA

"Bake iraunkorra" eta "elkarbizitza justua" sortzeaz aritu dira

Txintxarri

Dozenaka herritar mobilizatu ziren maiatzaren 29an Lasarte-Oriako Sarek aurrera eramandako Azken Ostirala ekin-tzan. Euskal preso, iheslarien eta deportatuen eskubideen alde, Elizatze plazatik abiatu eta Okendora ailegatu ziren beste behin.

"Bake iraunkorra" eta "elkarbizitza justua" sortzeko garrantziari heldu zion Lasarte-Oriako Sarek, agerraldiaren ostean Okendon irakurritako komunikatuan. Izan ere, euren arabera, ezinbesteko elementuak dira "behin-behineko konponbidea" emateko euskal preso, iheslarien eta deportatuen auziari.

Hori dela-eta, jakinarazi zuten elkarbizitza agertokietara jauzi egitea ahalbidetuko dutela, eta horretarako, "elkarren sufrimenduarekiko enpatiaz eta arduraz" zubiak eraikitzen jarraituko dute, baita "ezberdinen arteko kontsentsu eta gerturazteak" ere.

Gaineratu zuten "konponbidearen, bakearen eta elkarbizitzaren" alde aritu direla lanean azken hilabeteetan, nahiz eta batzuek arreta iraganean jarrita eduki, eta "mendekuaren gosea" izan zenbait lobby mediatikoek. Halaber, bide beretik segitzeko asmoa erakutsi dute.

Lasarte-Oriako Sarek esandakoaren arabera, mugarri izan



Maiatzaren 29ko ekintza. TXINTXARRI

ahal den agerraldia prestatu dute biharko, hilak 6, 11:30ean, Arrasateko Montero parkean. Herritar guztien presentzia "ezinbestekoa" dela uste dutelako, bertarako gonbita zabaldu diote euskal gizarteari.

GIZARTEA

Pentsioen gaia, kurtsoko azkena



BOROBILEAN ELKARTEA

Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduko kide Karlos Etxeberria gonbidatu dute orain arte lortutako aurrerapenez, erdiesteke daudenez, gutxien dutenen beharrez, pertsonen eskubideez, borrokez... hitz egitera. Borobilean Elkartearen kideek eskerrak eman dizkiote berari eta ordezkatzeko duen eragileari, "garai zail hauetan eredu direlako eta guztiontzako mundu justu batekin amesten dutelako".

GIZARTEA

Donostian mobilizatu dira

Donostialdeko ESI erakundeko Etengabeko Arreta Guneen "egoera gero eta okerragoa" salatu zuten osasunaren aldeko herri plataforma ugarik (gure herriko LOOPAk barne) Donostian, maiatzaren 25ean.

Eragile horrek iragarri du hilaren 18an mobilizatuko direla, 17:30ean.



LOOPA PLATAFORMA

NEURE KABUZ

Keinu txikien indarra

MAITANE REBE
KOLABORATZAILEA

Egunero iristen dira pobrezia, desparekotasunari edo krisi humanitarioei buruzko berriak gure pantailetara. Ikusi egiten ditugu, hunkitu egiten digute segundo batzuetan eta, gero, gure errutinarekin aurrera jarraitzen dugu. Hala ere, une batzuetan errealitate horiek zifra edo titular izateari utzi eta benetazko izen, aurpegi eta istorio bihurtzen dira.

Geroz eta konektatuagoa dirudien mundu honetan, desberdintasunek milioika pertsonen aukerak mugatzen jarraitzen dute. Leku batzuetan hezkuntzarako sarbidea, osasun arreta edo bizi baldintza duinak ziurtat jotzen ditugun bitartean, beste batzuetan eskubide horiek eguneroko erronka izaten jarraitzen dute.

Errealitate horren aurrean, arazoak handiegia direla-eta, gure banakako ekintzek eraginik izango ez pentsatzea erraza da. Hala ere, historian zehar pertsonen bizitza hobetu duten eraldaketetako asko horrela hasi dira: keinu txiki bakoitza elkartzean, azkenean, aldaketa esanguratsuak eragin daitezke.

Askotan individualismorantz bultzatzen gaituen garai batean bizi gara, pertsona bakoitzak bere ongizateaz bakarrik arduratu behar duela dioen ideiarantz. Baina errealitatea bestelakoa da. Lankidetzaren, zainketen eta erantzukizun partekatuen gainean eraikitako gizarte baten parte gara. Milaka kilometrotara gertatzen dena ez da guztiz arrotza gugandik, elkarri

lotutako mundu batean bizi garelako.

Elkartasuna ez litzateke ulertu behar batzuek laguntzen eta besteek jasotzen duten harreman gisa. Begirada horrek askoz konplexuago den errealitate bat gehiegi sinplifikatzen du, eta, batzuetan, pertsona batzuk besteen gainetik jartzen ditu. Benetako elkartasuna pertsona guztien duintasun berdintasunaren onarpenetik eta errespetuan, entzutean eta elkar ikasteen oinarritutako harremanak eraikitzeko borondateak sortzen da.

Inorrek ez ditu erantzun guztiak. Komunitate, kultura eta pertsona bakoitzak badu zer ekarria eta zer ikasia. Beste errealitate batzuetara hurbiltzeak ez luke balio behar aurreiritziak baieztatzeko, ezta batzuk besteen arazoak konpontzera datozela dioen ideia elikatzeke ere, baizik eta mundua hobeto ulertzeko eta gureak ez diren esperientziak bizi dituztenengandik ikas dezakegun guztia aitortzeko balio beharko luke.

Ezin ditugu munduko desberdintasun guztiak konpondu, baina bai erabaki dezakegula haien aurrean arduraz jokatzeko. Eta ekintza hauek, elkartzen direnean, badute gizarte justuago, gizatiarrago eta kontzienteago batera hurbiltzeko gai den indarra.

GIZARTEA

Bizi Kamerun proiektua laguntzeko diru bilketa, martxan

Abarka fundazioko kideek (herrietarrak daude horien artean) jakinarazi dute Kamerungo Refuge Meinrad Hega zentroko haurrei laguntzeko dirua biltzen hasi direla; euren hezkuntza, elikadura eta osasun beharrik bermatzea da helburua.

Ekarpena egin nahi dutenek Bizum bidez bidali beharko dute dirua 14266 Abarka ONGD helbidera. "Edozein ekarpenek benetako eragina izango du eta biltzen dugun diru guztia zuzenean bideratuko dugu Bizi Kamerun egitasmoaren bidez martxan jarri dugun proiektura", jakinarazi dute Abarkako kideek.

Informazio gehiagorako: 669 58 65 33 eta ainhoa@abarka.org helbide elektronikoa.



LGTBIQ+fobiaren aurkako eguna ospatu zuten Okendo plazan. TXINTXARRI



Manifestua irakurtzen. TXINTXARRI



Koloretako oihala astindu zuten parte hartzaile guztiek, elkarrekin. TXINTXARRI

GIZARTEA

Aldarrikatzeko jaia egin dute Bizipoza eta Naizen elkarteek Okendo plazan

Urrats garrantzitsuak egin arren, dena galtzeko arriskua dagoela adierazi dute

Lierni Apaolaza Urdanpileta

LGTBIQ+fobiaren aurkako jaia ospatu zuten Bizipoza eta Naizen Elkarteek maiatzaren 29an, Gazte Kluba egitasmoko haurrekin batera, Okendo plazan. Horretarako jaialdia prestatu, hainbat jarduerara aurrera eramane zizuten.

Enparantza nagusian bilduta, Naizen eta Bizipoza Elkarteek manifestu bateratua leitu zuten. Naizen Elkartearen historiari buruz aritu ziren. Izan ere, adierazi zuten 2015ean sortu zela taldea, eta Chrysallis EH zuela izena garai hartan. Hastapenei

buruzko azalpenei jarraiki, jakinarazi zuten maitasuna eta ezagutza dituztela trans haurrek bizitza duina izateko aldarriaren ardatz.

Maitasunak maitasun, adierazi zuten hortik abiatzea erabaki zutela hasiera-hasieratik, nahiz eta batzuetan ulertu gabe aritu edo zalantza betetako jardun. Ildo horretatik partituta, gaineratu zuten "babesa eta sare emozionala" topatu dituztela, urteotan, elkarrekin. Era berean, ezagutza ere jaso, eta jakintza hori "giltzarri" izan omen dute

ulertzeko, baita haur transen errealitatea ikusarazteko ere.

Naizenen ibilbideari eta baloreei erreparoa eginda, azken hamarkadan jazotako aldaketak ekarri zituzten gogora. Finean, duela hamar urte, "pentsaezinak eta ikusezinak" ziren zakila zuten neskek eta bulba zuten mutilak, taldearen arabera. Hori ez ezik, gaineratu zuten "inposatutako mozorro baten barruan" bizi zirela, zigortu egiten baitzitzaien, zuzendu. Errealitate hori aldatzeko, helduak haur transak entzuten hastea gakoia

izan dela uste dute elkartekideek. Haur transen bizi-kalitatea hobetzeko, "ikustea, ikusia izaten uztea eta laguntzea" izan ziren "formularik onena". Ildo beretik, *Ikus dezadan* abestiaren zenbait esaldi gogora ekarri zituzten: "Bil nazazu zure begiradan, ikusten nauzula ikus dezadan".

Lan "asko" egiteke

Egindako lanari esker, egun, beren sexu-identitatea errespetatua eta onartua duten lehen belaunaldia izan, badela aitortu dute Naizeneko kideek, baina oraindik lan asko egiteko dela ere bai. Izan ere, pauso garrantzitsuak eman diren arren, aditzera eman dute dena galtzeko arriskua existitzen dela; besteak beste, zenbait lekuetan eskubi-deak ukatu zaizkie trans pertsonen, gorroto-delituen gorakada ere ematen ari da. Hori de-

la-eta, borrokan jarraituko dutela berretsi dute Bizipoza eta Naizen Elkarteek. Manifestua irakurtzen bukatzeko Ekai Lersundiren hitzak leitu zituzten: "Horrek guztiak bidea erraztu dezala atzetik datozenezat".

Okendo plazako ekitaldiarekin amaitzeko bi abestirekin dantza egin zuten Lasarte-Oriako Bizipoza, Naizen eta Gazte Kluba egitasmotako kideek, elkarrekin: *Ikus dezadan* eta Naizen elkartearen kantuarekin.

Maiatzaren 29ko ekimena izan zen Bizipoza taldekoek beste eragile batzuen errealitatea eta lana ikusarazteko egindako hirugarrena: aurrenekoa Aspaino Gipuzkoako Haur Minbizidunen Familien Elkarte gonbidatu zuten, eta bigarrenean, Ndank Ndank elkarte. Horrez gain, Milakultura Jaia egin zuten maiatzaren 8an.

EUSKARA

Kulturartekotasuna eta Milakultura Jaia landu izana eskertu diete

Joan den astelehen eguerdian (hilak 1) Oriarte Landaberri instituturara bertaratu ziren Lasarte-Oriako Bizipoza taldeko ordezkariak, bertako ikasle eta irakasle talde bati eskerrak ematera: ikasturte honetan zehar kulturartekotasunaren gaia jorratu dute buru-belarri, maiatzaren 8ko Milakultura Jaia aurrera eramateko "lan bikaina" aurrera eramane zuten eta etorri berriak diren ikasleei ongietorria egiteko harrera protokoloa prestatzen ari dira.

Elkar topatzerakoan Bizipozaren pinak, zapiak, abestiak eta bideoak oparitu zituzten, baita oihalak lepoaren bueltan lotu ere. Horrekin batera,

eragileak zer-nolako lana egiten duen helarazi zien eta elkarrekin hamaiketako ere egin zuten.

Amaitzean den kurtsoan zehar egindako lana eta izandako inplikazioa eskertuta, urriaren 17ko eta 18ko 11. Euskararen Maratoian parte hartzera gonbidatu zituzten, aurtur egindako lana zein etorkizuneari buruzko azalpenak emateko leporaino beteta egongo den Okendo plazan. Beste hamaika egitasmo, eragile eta norbanak bezalaxe, Bizipozako kideek ere parte hartuko dute euskararen aldeko jarduerara erraldoi horretan.



Oriarte BHiko ikasle eta irakasleak, Bizipoza taldeko kideekin. BIZIPOZA

11. Euskararen Maratoian bideoak grabatu dute

Datorren astelehen eguerdian (hilak 9) grabatu dute 11. Euskararen Maratoian bideoak. Zortzikoteko kideek zein antolatzaileek (udalak eta Ttakun Kultur Elkarteak) herriar guztiak animatu dituzte Okendo plazara joatera. Jakinarazi dute 19:00etan hasiko direla grabatzen.

Berriki aurkeztu dituzte urriaren 17an eta 18an aurrera eramango duten euskararen aldeko ekimenaren zortzikotea, leloa (*Piztu! Sugarra gu gara*) eta logotipoa. Horrekin batera, bi abestietako baten koreografia erakutsi dute. Beste kantuari buruzko xehetasunak aurrerago partekatuko dituzte.

POLITIKA

"Eragile zentratua eta zabala izango da Ernai; gazteriaren etxea eta eskola"

AMAIUR IZAGIRRE ETA XUBAN URDALLETA
LASARTE-ORIAKO ERNAI ERAGILEKO MILITANTEAK

"Etsipen giroa" gailendu den mundu honetan gauzak aldatzea posible dela aldarrikatu dute gazteek

Iñigo Gonzalez Sarobe

Ia urtebete iraun duen prozesua Bergaran egindako IV. Kongresuarekin itxita, etorkizunean egin beharreko lanerako indarra eta motibazioa eskuratu dute Lasarte-Oriako Ernai eragileko partaideek. Horietako birekin, Amaiur Izagirrerekin eta Xuban Urdalletearekin elkartu da TXINTXARRI aldizkaria.

Berriki egin duzue IV. Kongresua, Bergaran burututako ekitaldiarekin; 800 lagun baino gehiago elkartu zarete han. Zer-nolako balorazioa egiten duzue han hitz egin, landu eta bizitakoaz?

Xuban Urdalleta: Hori da, esan duzun bezala 800 lagun baino gehiago bildu ginen Bergaran maiatzaren 9an, ia urtebete iraun duen prozesua ixteko. Denbora horretan hainbat tarte hartu ditugu hausnartzeko eta lanketa luzea izan da: atzera begiratzeaz gain aurrera begira ere aritu gara. Emaitzak oso positiboak izan direla iruditzen zaigu, parte hartu dugunok ideia berriekin eta mentalizatuta atera garelako. Hori guztia biribildu genuen IV. Kongresuan.

Ia urtebete iraun duen lanketa horretan landu duzuen guztitik zer nabarmentzen duzue?

X.U.: Lehen esan bezala, egin genuen aurreneko ariketa atzera begiratzea izan zen urteotan guztiotan egindako ibilbidea errepasatu eta akatsak detektatzeko. Ondorioztatu dugu identitate garbia behar duela Ernaik eta

hori islatzen jakin behar duela, nazio askapenaren mugimendua berriro ere erdigunera ekarrita. Aurreko urteetan gai gehiegiri heldu nahi izan genien, guztiei batera, eta aipatutako horretan zentratzea erabaki dugu. Horrekin batera, noski, gazteon behar eta kezka politizatzekeo ardura hartu dugu. Laburbilduz, Ernai zentratu eta zabala behar dugu, ahalik eta gazte gehien bildu nahi ditugulako.

Ponentzia berriak militanteen % 92aren babesarekin onartu dituzue. Zuen ustez, zein izan da horrenbesteko adostasuna lortu izanaren gakoak?

Amaiur Izagirre: Xubanek lehen azaldu duen bezala ia urtebetekeo prozesua burutu dugu. Lehenengo momentutik oso motibagarria izan da militanteontzat, aurrera begira jartzeko egoera dinamiko eta aktiboa erakutsi digutelako. Aurkezpenak, irakurketak, emendakinak, herriz herriko taldeetan eztabaidak... ordu asko eta asko eman ditugu lanean. Ikusi dugunean urtebetekeo ibilbidea paperean jasota, indarra eman digu eta askok babestu dugu bide hori.

Nolakoa izan da lanketa hori zuen taldean, Lasarte-Oriako Ernain?

A.I.: Gaur egungo taldea osatzen dugunotatik bik bakarrik bizi izan zuten aurreko kongresuaren prozesua. Beraz, berria izan da ia denontzat. Prozesuari ekin aurretik lau militante batu ziren, gainera. Militantziak asko ematen du, baina exijitu ere bai, eta



Amaiur Izagirre eta Xuban Urdalleta, Xirimiri elkarteko atarian. TXINTXARRI

oso polita izan da kide berriak testuinguru horretan ezagutzea. Usurbilen hasi ginen aurkezpen batzuekin eta geroko eztabaidak Lasarte-Oriako eta Andoaingo kideon artean egin ditugu; horretarako, espazio oso seguruak sortu ditugu partaideetako bakoitzak lasai asko esan zezan burura etortzen zitzaiona. Militante nahiz pertsona gisa hazteko prozesua izan da.

X.U.: Oso aberasgarria eta motibagarria izan da prozesu honetan parte hartzea eta balio izan digu eskualdeko jendearekin harremanetzeko eta saretzeko. Baditugu espazio gehiago ere, baina hauek intimoak eta iritziak partekatzekoak izan dira.

A.I.: Bai, batez ere izan dira aisialditik kanpoko tokietan elkartzeko aukerak.

Eta kongresuaren ostean, zer?

A.I.: Gai asko landu ditugu jakina baina ideia nagusia Ernai zentratua eta zabala izatearena da. Zentratua, gehienbat, identitatea sortu, errotu eta erakusteko; eta zabala, orain arte zehaztutako mugak bota eta esparru gehiagotara iristeko. Horretarako, militantzia modua aldatu eta profil berriengana

joko dugu. Ernai izango da gazteriaren etxea eta eskola.

X.U.: Norabide horretan, aldarrikatzen dugu Euskal Herriaren independentzia izango dela gaur egungo problematikei konponbidea emateko modua.

Lasarte-Oriatik bertatik hasita, mundu osoan garaiak ez dira samurrak eta konplexua da testuinguru. Horren aurrean, zeintzuk dira Ernain borrokarako ildo nagusiak?

X.U.: Mundua hankaz gora dago: gerrak; ultraeskuinaren gorakada, arrisku izatetik errealtate bihurtzera igaro dena; faxistek feministen borrokan eragin nahi duten atzerakada; edota euskararen aurkako oldarraldia. Horren guztiaren aurrean Euskal Herri aske, euskaldun, sozialista eta feministaren alde borrokatuko dugu. Pertsona orori eta bereziki gazteoi zuzenean eragiten

diguten gaiak landuko ditugu, adibidez, etxebizitzarena.

Etxebizitzarena da Lasarte-Orian bertan pil-pilean dagoen gaitako bat. Arazo hori eta detektatuta dituzuen gainerako guztiak nola landuko dituzue aurrerantzean herrian, kongresutik "motibatuta" irten ostean?

A.I.: Egin behar dugun lehenengo gauza da kongresuan landutako guztia gure herrian lurretatzea. Errealitatea eta testuingurua irakurrita nondik jo erabakiko dugu gero, kontuan izanda taldeko dinamika batzuk ere aldatu beharko ditugula. Kanpora begira lanean hasi aurretik, barrukoa aldatuko dugu. Helburua izango da normalizat har daitezkeen egoerak eta jarrerak, matxistak esate baterako, normalak ez direla erakustea. Despolitizazioaren aurrean borroka dezakegula eta gauzak alda ditzakegula erakutsiko dugu.

X.U.: Dinamika berriak martxan jarri ahala unean uneko arazo eta problematikak identifikatuko ditugu, lantzeko. Despolitizazioarenari dagokionez, horrez gain, esango nuke etsipen giroa dela nagusi gazteariaren artean, den-dena dela iluna eta ez dugula argirik ikusten; ezin dugula ezer egin. Guk aldarrikatzen dugu baietz, posible dela, antolatu eta borrokatuz gero. Gure taldea bera da horren adibide.

Lasarte-Oriako Ernain militatzen hasi nahi dutenek nola jar daitezke zuekin harremanetan?

X.U.: Instagram kontua izan daiteke horretarako aproposa, @ernailasarteoria.

A.I.: Eta bestela, herriko jendea garenez, etor daitezkeela Ilargi tabernara, Xirimiri elkartera... Bertan aurkituko gaituzte. Askoz politagoak iruditzen zaizkigu aurrez aurreko harremanak hastea eta horrela saretzea.

X.U.: Hori da, etor daitezela inolako beldurrik gabe. Ez gara talde itxia, guztiz aurkakoa baizik.

A.I.: Bizitzarako harremanak sustatzea ere politika da eta Ernainko kide izatea bizitzeko modu bat da.

Xuban Urdalleta:
"Nazio askapenaren mugimendua erdigunera ekarri dugu berriro ere"

Amaiur Izagirre:
"Pertsona zein militante gisa hazteko prozesua izan da"



Gazteen mailako taldea, garaikurrarekin. EGUZKI AF



Kadete mailako finaleko irudia. TXINTXARRI



Jalgunekoez ederki jokatu zuten. JALGUNE



Eguzki ISU Leihoakeko jokalariek eta prestatzaileak, koparekin. EGUZKI AF

ARETO FUTBOLA

Eguzkiko Erregional I. Mailako zein gazteen taldeek garaikurra altxa dute

Kadete mailako Gipuzkoako txapelketa penaltietan erabaki da; Lauburu Ibarra

Txintxarri

Areto futbol zaletuek lehia zirrargarriez gozatu zuten, maiatzaren 29an eta 30ean, Maialen Chourraut kiroldegian. Eguzki AFko ordezkariek maila eta txapelketa ezberdinetako finalak jokatu zituzten eta hirutik biren irabazi zuten garaikurra.

Erregional I. mailako Kopako finalak eman zion hasiera asteburuari. Eguzki ISU Leihokets Anoeta izan zuen aurrez aurre eta etxekoek ez zuten hutsik egin. Lehia estua penaltia sartuta hautsi zuen etxeko taldeak. Bigarren gola ere egin zuen eta aurkariak presioa sartzeko, 2-1eko egin zuen. Herriarrek, ordea, ongi erantzun zuten eta beste bi gol eginez, kopa etxean utzi zuten.

Hurrengo egunean, kadete zein gazteen mailako Gipuzkoako txapelketako finalen txanda izan zen.

Eguzki Escalerilla eta Lauburu Ibarra hasi zuten jardunaldia kadete kategoriako lehiarekin eta penaltietara iritsi ziren araututako denboran launako berdinketa eskuratzean. Etxekoek, ordea, ez zuten zortetik izan zigor puntutik eta 2-4koarekin ibartarrek eskuratu zuten garaipena.

Final eta final artean, Jalgune elkarteko kideek eta Eguzkiko jokalariek zein gurasoek ere neurketa ederra jokatu zuten.

Ondorenean, gazteen mailako Laskorain-Eguzki Lekuona tailerrak partida lehiatu zen; Lasarte-Oriako taldeak kanpoko modura jokatu zuen.

Norgehiagoka berdindua izango zela zirudien arren, hori-beltzek ongi baliatu zituzten aukerak eta markagailuan 0-2 aurreratu ziren. Aurkariak bitan errenta murriztu zuen (1-2 eta

2-3). Alabaina, herriko ordezkariek ez zuten ligako txapelak ihes egitea nahi eta beste bi goli esker garaipenari eutsi zioten.

Atsedetik ez

Talde hori-beltzeko kideek oraindik ez dute denboraldia amaituko. Infantil eta kadete mailako taldeek hilaren 5etik 7ra, 16 eta 14 urtez azpiko Kluben arteko Espainiako txapelketako lehen fasea jokatu dute, Ourense (Galizia) eta Cartagenan (Murtzia), hurrenez hurren eta hilaren 19tik 22rako azken fase-rako txartela borrokatuko dute.

Bestetik, Eguzki Lekuona tailerrak gazteen mailako Euskadiko Kopako final laurdenei egingo die aurre. Bilboko Otxartabe izango dute aurkari eta Bilbon (Bizkaia) hilaren 13an eta 14an jokatu den lauko finalerako sailkapena izango du jokoan.

ASTEBURUKO KIROL HITZORDUAK

FUTBOLA

LARUNBATA 6

GORENGO MAILA, IGOERA
• Ordizia KE - Ostadar SKT
18.00. Altamira, Ordizian.

IGANDEA 7

KADETE I. MAILA, IGOERA

• Beti Ona - Ostadar SKT
12.00. Beraun, Erreterian.

ARETO FUTBOLA

LARUNBATA 6

GAZTEEN EUSKAL KOPA
• Eguzki Lekuona T. - Otxarkoaga
12.00. Maialen Chourraut kirol.

OSTIRALA 5/IGANDEA 7

ESPAINIAKO TXAPELKETA

• Eguzki Escalerilla zein Eguzki Andatza taldeek 16 eta 14 urtez azpiko klubaren arteko Espainiako txapelketako lehen fasea lehiatuko dute.
Ourense, Galizia/Cartagenan, Murtzian.

PILOTA

OSTIRALA 5

ESKUZ, BANAKA, 4 1/2, K. 2. MAILA

• Intza KE (Atorrasagasti) - Hernani
18.00. 2. partida. Loidibarren pil.
• Ilunpe - Intza KE (Elola)
18.00. 1. partida. Azpeitian.

ESKUZ, BANAKA, 4 1/2, K. 3. MAILA

Intza KE (Maiz) - Tolosa

18.00. 1. partida. Loidibarren pil.

ESKUZ, BINAKA, UD., I. 1. MAILA

• Intza - Aretxabaleta 1
18.00. 3. partida. Loidibarren pil.

OSTEGUNA 11

SANTA ANA PALA TXAPELKETA

• Arrondo/Goikoetxea - Begiristain/
Castro
19.00. Loidibarren pil.

ARRAUNA

IGANDEA 7

EUSKADIKO TXAPELKETA

• Herriko arraunariak dituzten ontziek Euskadiko txapelketa lehiatuko dute.
11.00. Getarian.

IGERIKETA

LARUNBATA 6

GIPUZKOAKO UDAKO SARIA
• Buruntzaldea IKTKo igerilariak Gipuzkoako Uda XV. Sarian ariko dira igerian.
15.30. Oñatin.

LARUNBATA 6/IGANDEA 7

GIPUZKOAKO OPEN SARIA

• Buruntzaldea IKTKo igerilariak Gipuzkoako Open Sarian parte hartuko dute.
Paco Yoldi kirol., Donostian.

ERRUGBIA

IGANDEA 7

OHOREZKO MAILA, FINALA

• Vrac - Ap. Burgos
12.00. Valladolid. Gaztela eta Leonen.

ATLETISMOA

LARUNBATA 6/IGANDEA 7

EUSKADIKO TXAPELKETA

• Lasarte-Oriako atletak Euskadiko txapelketa lehiatuko dute.
Durango, Bizkaian.

ESPAINIAKO TXAPELKETA

• Lasarte-Oriako Amelie Flores eta Alai Romero atletak 16 urtez azpiko Espainiako txapelketan parte hartuko dute.
La Nucia, Valentziako Erkidegoan.

TXIRRINDULARITZA

LARUNBATA 6

• Andoingo Txirrindularitza Eskolako herriarrek IX. Etxebarriako Sari Nagusian parte hartuko dute.
10.15. Etxebarria, Bizkaian.

HIPODROMOA

OSTEGUNA 11

UDAKO DENBORALDIA

• Uda denboraldira hasiera emango dio Hipodromoak.
17.30. Hipodromoak, Donostian.

PIRAGUISMOA

OSTIRALA 5/IGANDEA 7

MUNDUKO KOPA

• Munduko kopako bigarren saioa lehiatuko da.

Praga, Txekiar Errepublika.

ARRAUNA

Hirugarrenez, Gipuzkoako txapeldun



DONOSTIA ARRAUN LAGUNAK

Gipuzkoako traineru txapelketa lehiatu zen Getariako uretan, hilaren 31n. Aiora Belartietak eta Enara Arruti kide dituzten Donostia Arraun Lagunak eta Nortindal Donostiarra izan ziren lehian eta lehenek lortu zuten garaipena. Hirugarren txandan, Donostia Arraun Lagunak eta Tolosaldearen arteko lehia estua ikusi ahal izan zen, baina donostiarrek hirugarrenez jaso zuten bandera. Donostiarra, aldiz, bosgarren izan zen.



Ostadar SKTko sail ezberdinetako kideek zein sari bereziak jaso zituzten herritarrek talde argazki egin zuten. TXINTXARRI

DENBORALDI AMAIERA

Ostadar SKTko kirolariek jai giroan eman diote amaiera denboraldiari

Jon Martinek, Ander Bardajik eta Jesus Mari Egizabalek jaso dituzte sari nagusiak

Txintxarri

Diziplina ugari biltzen ditu Ostadar SKTko, kirol mordoa. Besteak beste, ipar martxa, futbola, saskibaloia, atletismoa, txirrin-

dularitza. Horiek denak balioan jartzeko eta 2025-26 ikasturtea ospatzeko, jai antolatu zuen klubak hilaren 30ean, Oriarte institutuan.

Lehenik eta behin, Isaac Farre argazkilaria omendu zuten. Imaginen bidez jaso ditu herriko makina bat ekitaldi, jai ugari Farrek, zortzi urtez. Egindako



Ostadar SKTko jokalaria, erasoan, Ordiziaren atezainaren aurrean. TXEMA VALLES

FUTBOLA

Michelinen husna berdindu eta Altamiran erabakiko da igoera

Ostadar SKTko Gorengo mailako taldeak eta Ordiziako ez dute zorterik izan aurkariaren atea zulatzerakoan

Txintxarri

Gizonezkoen Txapeldunen Liga-ko finalaren ordu berean hasi zen, maiatzaren 30ean, Ostadarren eta Ordiziaren aurkako neurketa. Michelingo zelaian bildu ziren jokalariek, entrenatzaile eta zaleentzat askoz gehiago zegoen jokoan

bertan Budapest-en baino eta nabaritu zen, batez ere, hasierako minutuetan. Bi taldeak oso kontzentratuta irten ziren eta aurreneko jokaldiak baliatu zituzten barruan zeramaten adrenalina (eta bide batez, hankak eta buruak) askatzeko.

Kadeteak, mantendu

Gorengo Mailako partidaren aurretik, Kadete Ohorezko mailako taldeak jaitzierako azken jardunaldia jokatu zuen Beti Gazteren aurka. Lasarte-Oriako taldea nagusi izan zen zelaian eta markagailuan isla izan zuen: 7-0 gailendu ziren gazteak.

Ondorioz, taularen erdialdean geratu dira urdin-beltzak eta



Jesus Mari Egizabalek jaso zuen Auzolan saria eta hitz batzuk esan zituen. TXINTXARRI

ibilbidea aitortzeko, eta Ostadarrekin izandako harremana eskertzeko, ilustrazio bat oparitu zioten.

Jarraian, diziplina oroko kirolari jatorrenen sariak banatu zituzten. Betiko legez, saridunek alfombra gorria zeharkatu zuten oroigarria jasotzeko.

Ondotik, Kirol Ibilbidearen saria jaso zuen Ander Bardajik atezain ohiak. Kategoria hori aurrean eman dute lehenengo aldiz. Kirolari onenarena, aldiz, Realeko jokalaria Jon Martini eman zioten. Espainiako Selek-

zioarekin lanean diharduelako, bere anai Xantik jaso zuen oroigarria. Herritik eta herriarentzat egindako lanagatik, Jesus Mari Egizabal izan da aurtengo Auzolan saria. Eskertuta, mikrofonoa hartu eta hitz batzuk esan zituen.

Ekimenarekin era goxoan amaitzeko, errugbiaren ezinbesteko elementu den hirugarren denbora prestatu zuten Beltzak RTko beteranok: txistorra, eta edateko, freskagarria edo ura. Primeran amaitu zuen denboraldia Ostadar SKTko.

Mikel Etxarri omenaldia

Epailak partidaren hasiera iragarri aurretik, parez pare jarri ziren Ostadarreko zein Ordiziako jokalariek eta entrenatzaileak, erditik igaro zen Mikel Etxarri entrenatzaile herritarra txalo artean hartzeko. Ohorezko Mailara igotzeko kanporaketako joaneko partidaren ataria erabili zuten bere ibilbide eta lan oparoagatik eskerrak emateko. Hunkituta jaso zuten aitortza protagonistak eta baita senideek ere. Gipuzkoako harrobiko futbolaren alde egindako jardunaren erakusgarri izan zen, besteak beste, atzoko norgehiagoka. Duela aste batzuk ere Gipuzkoako Futbol Federazioak Entrenatzaile Eskolak hemendik aurrera bere izena eramango duela jakinarazi zuen eta hilaren 5ean, urteko galan Gipuzkoako Futbolaren Mito saria jasoko du.



Omenaldiko irudia. TXEMA VALLES

hurrengo urtean ere kategoria horretan izango dira lehian.

Ate irekiak

Ostadar SKTko ate irekien saioak egin ditu Michelin kirol gunean, berriki.

Hilaren 8tik 11ra, aldiz, Texas Lasartearra CFren txanda izango da. Horrez gain, 2014-2017an jaiotako neska-mutilentzako campusa ere antolatu dute. Taldearen sare sozialetan jarri dute informazio guztia.



Goizean eskolako haur eta gurasoek joko eta partidaz gozatu zuten. TXINTXARRI



Partidako plakaje bat. TXINTXARRI



Zendutako Izar Beltzen familiei lore sortak eman zizkieten. TXINTXARRI

ERRUGBIA

Izar Beltzak torneoa, oroimenezkotik abiatutako errugbi eguna

Gaztedi gaindituta, Beltzak Lasarteorians-ek irabazi du Izar Beltzak torneoa

Txintxarri

Errugbi eskolako haurrek eta euren senideek eman zioten hasiera jardunaldiari. Atsobakarrereko kirolgunean bildurik, jolasean aritu ziren, eta jarraian, lehia berezia eman zen haurrak helduen aurka neurtu baitziren, giro alaietan. Goizeko txandarekin amaitzeko, hirugarren denboraz gozatu zuten denek batera.

Bazkalorduan, menu goxoa dastatu zuten, hots, paella. Kirolgune barruan mahaia ipini, eta arratsaldeko jaiari gogoz heltzeko indarberritu ziren.

Oroimenezko torneoari ekiteko, Gaztedi RT eta Beltzak Lasarteorians klubak neurtu ziren. Erakustaldi ederra eskaini zuten lasarteoriarrek; jokaldi biziak eta entsegu ikusgarriak. Partida etxekoek irabazi zuten.

Omenaldi hunkigarria

Jardunaldi ederrarekin amaitzeko, sari banaketa egin zuen Antonio Vegak. Klubeko hildakoen familiei lore sortak eman zizkieten, hasteko. Ondoren, jokalariei oroigarriak eman zitzaizkien kirolari jatorrena edo

erretxinena izateagatik, besteak beste. Beltzak RTeko harrobian hasi eta ibilaldi fina egiten ari den Eneko Sanchez ere gogoan izan zuten. Torneoko irabazleak izateagatik, Izar Beltzak saria jaso zuen Beltzak Lasarteorians-ek. Gogotik ospatu zuten garaipena. Tarteka, Oreretako Hoku-Kai taldeak dantza polinesiarrak eskaini zituen.

Eguna biribiltzeko, trikitixaren eta panderoaren doinu artean, hirugarren denbora egin eta Zubietako Iruin sagardotegian afaldu zuten.

Gaztedi, Euskadiko txapeldunorde

Ez da posible izan, Aipea Racamonde herritarra kide duen Gaztedik ezin izan dio kopa altxatuz Euskal Ligari agur esan.

Maiatzaren 30ean, Euskal Ligako finalak jokatu ziren Asti zelaian, Zarautzen. Emakumezko lehia, Gasteizeko taldeak Arrasate, Elorrio eta Zornotzako jokalariz osatutako Geurea izan zuen aurrez aurre. Ohorezko B mailara igoera lortu ostean, denboraldiari amaiera bikaina emateko aukera zuten herritarrak eta bere kideek, baina ez zen posible izan.

Borroka lehiatua izan zen zelaian. Lehen zatian gorri-beltzak markagailuan entsegu eta gauzatzeari 7-0 aurea hartu zuten arren, aurkariak ez zuen amore eman eta bigarren zatian bi entseguri esker, garaipena erdietsi zuen.



Finaleko irudia. EUSKADI RUGBY

PIRAGUISMOA

Maialen Chourrautek brontzeko domina jantzi du Munduko Kopan

Txintxarri

Maialen Chourraut herritarra berriro ere podiumera igo da. Olinpiar dominadun kirolariak Munduko Kopako lehen jardunaldia jokatu zuten maiatzaren 29tik 31ra Tacen-eko kanalean, Eslovenian eta eslalom K1eko hirugarren postua eskuratu du herritarrak.

Finalerdian zortzigarren marka onena eginez sailkatu zen Chourraut azken lehiara eta finalean, jaitziera garbia eta azkarra egin zuen: 83,85. Eva Hocevar esloveniarrak (81.61) eta Jessica Fox australiarrak (81.74) bakarrik gainditu zuten herritarra.

Kayak kros modalitateko proban, berriz, Lasarte-Oriako kirolaria

sailkapen probetan lehiatik kanpo geratu zen.

Chourraut pozarren dago egindako lanarengatik: "Pausoz pauso joan gara. Finalerdian 3-4 manobra bat kosta zitzaidan eta finalean ere. Baina azken arte borrokan egon iaz. Taceneko kanala zaila da, tentuz ibiltzekoa eta pozik nago lortutakoarekin".

Eta ez du atsedenek izango, hurrengo lehia hilaren 5etik 7ra izango du herritarrak Pragan (Txekiar Errepublika).

Txapeldun, kayak krosetan

Tacenekoa ez da Lasarte-Oriako palistak aurten eskuratzen duen lehen domina. Maiatzaren 17an, Kayak Krosetan Espainiako txa-



Chourraut, dominarekin. BAT BASQUE TEAM

pelketa lehiatu zen Pauen (Frantzia) eta herritarra garaile izan zen. Apirila eta maiatzean eslalom zein kayak krosetan Espainiako Kopako probetan parte hartu zuen Chourrautek eta lehen postuetan izan zen lehen modalitatean bai Pauen, baita La Seu D'Urgellen jokatutako saioetan ere.

BOLEIBOLA

Kadete Errendimendu taldea, bigarren



OSTADAR BOLEIBOLA

Ostadar SKTko Kadete Errendimendu taldeak bere kategoriako txapeldunorde garaikurra jaso zuen, Donostian. Denboraldi ederra egin du; azken fasean neurketa bakarria galdu du. Tolobolei A-k puntu berdinketa lortu arren, aldeko eta aurkako jokoak eta tantoak kontuan izanik tolosarrek eraman dute Liga. Bestalde, senior mailako Gipuzkoako kopa azken fasera iritsi da eta Ostadar A eta B ekipoek elkarren aurka jokatuko dute hilaren 13an finaleko postu bat eskuratzeko.



Ezkerrean, Alaia Romero, Realarekin, podiumean. Eskuinean, Mari Carmen Olaso, lau dominekin. I. ROMERO/MC OLASO

ATLETISMOA

Alaia Romero eta Mari Carmen Olaso lehia ezberdinetan ederki jardun dira

Kluben arteko Espainiako zein Master mailako Euskadiko txapelketetan lehiatu dira

Txintxarri

Lasarte-Oriako Mari Carmen Olaso eta Alaia Romero atletek bi hitzordu garrantzitsuri egin zieten aurre maiatzaren 30ean eta 31n eta emaitza ederrak izan zituzten.

Olasok Euskadiko Master Txapelketan parte hartu zuen Durangon (Bizkaia). Herritarrak lau proba egin zituen eta guztietan lortu zuen domina. 400 m., 800 m., eta 5.000 m. lasterketetan F55 mailako garaile izan zen; 1.500 metroko saioan, aldiz, bigarren izan zen.

Romeroren kausan, klubon arteko Espainiako txapelketako Bigarren Mailako A finalean lehiatu zen Real Sociedad taldearekin, Burgosen (Gaztela eta Leon).

100 m. lasterketa zein 4x100 m. erreleboa egin zituen atleta gazteak. Lehenean bere marka ondu zuen, 12,85; erreleboan,

lehen posta egin zuen Romerok eta bigarren sailkatu ziren (47,45).

Talde txuri-urdinak 114 puntu batu eta bere mailako garaile izan zen. Kategoria igoera ere zegoen jokoan lehiaketan eta lehen postuari esker, Real Sociedad-ek lehen mailan jokatu du hurrengo denboraldian.

Txapelketa gehiago

Ekaineko lehen asteburuan ere izango dute hitzordurik herriko atletek.

Alaia Romerok (100 m. lasterketa) eta Ostadar SKTko Amelie Floresek (100 m. hesi lasterketa) 16 urtez azpiko Espainiako txapelketari egingo diote aurre La Nucian (Valentziako erkidegoa)

Bestalde, Ostadarreko atletek eta beste taldeetan dauden herritarrek Euskadiko txapelketa lehiatuko dute, Durangon (Bizkaia).

Lasterketetan ere, fin

Ereñotzuko Mendi lasterketa, Enpresa lasterketa, Zegama-Aizkorri Mendi Maratoia, Mugitu Tolosa, Talaimendi trail, *La Conquista Del Castillo*, Amara Berriko krosa... maiatzean lasterketa lasterketa izan dira errepideko zein mendiko korrikalariak.

Aipatzekoak dira Jon Presak Gordexolako (Bizkaia) San Cosmeko itzulian lortutako bigarren postua edota Borja Granado herritarrek Moncayoko Ultra trailean egindako bosgarrena, baita LOTMEko Alberto Romanek Zegama-Aizkorri amaitu zuela ere.



LOTMEko kideak, Beriain tontorrean; atzean, hodei itsasoa. LOTME

MENDIA

Andia mendilerroko inguruneaz gozatu dute LOTMEko kideak

Lasarte-Oria Mendi Lasterketa-Juanlu Oroimezkoa irailaren 27an lehiatuko dute eta izen ematea ireki dute

Txintxarri

Lasarte-Oria Trail Mendi Elkar-teak (LOTME) maiatzeko irteera egin zuten hil horretako 31n. Uhart-Arakil eta Irurtzun arteko ibilbidea egin zuten elkar-teko kideak eta Andia mendilerroko inguruneetik barrena ibili ziren.

Beriain tontorrean harana estaltzen zuen hodei itsasoz gozatu zuten mendizaleek. Bidean, ordea, eguzkia izan zuten lagun. Euskal Herriko erdigune geografikoa igaro eta bazkal ostean, Txurregi mendiko igoeira egin zuten: "Pilatutako beroak eta aldapen gogortasunak eragina izan zuten. Pauso bakoitzak ahalegin gehigarria eskatzen zuen".

Bidea amaitzeko Irurtzunera jaitsi ziren. "Ez zen erraza izan, eta adi egon behar izan genuen tarte teknikoan segurtasunez gaintzeko", azaldu dute LOTMEko kideak.

Familia ibilbidea

Bestalde, LOTMEK gogorarazten du Familia ibilbideko izen ematea martxan dela.

Lasarte-Oriatik Buruntzako tontorrera antolatu duten ekimena hilaren 21ean izango da.

Kirol elkarteko webgunearen zein Zirkuituaren bidez egin daiteke. Hilaren 19ra arte edo plazak agortu arte, egongo da irekia.

Juanlu Oroimezkoa

Eta antolatzen dituen ekimenen artean aurten Lasarte-Oria Mendi Lasterketa-Juanlu Oroimezkoa dago. Irailaren 27an jokatu da proba eta inskripzioa ere ireki du taldeak. 14,5 kilometroko proban Buruntzako aldapa eta bidezidorei aurre egin beharko diete korrikalariak.

Irailaren 25era arte edo dortsalak amaitu arte, elkarteko webgunearen eta Kronoak atari digitalaren bidez egin ahalko da izen ematea.

JUDO

Gerriko beltzak eta dan berria

Lasarte-Oria Kirol Elkarteko (LOKE) judoek, Marco Iriso, Ariane Luis eta Maria Escribanok gerriko beltzeko azterketa gaintu berri dute eta Almi Camposek bigarren Dana eskuratu du. Probak Donostian egin zituzten hilaren 30ean eta horiekien batera izan zen talde kide Lucas Morales *uke* lanetan.



LOKE JUDO

IPAR MARTXA

Ostadar Ipar Martxak, ikasturteko azken irteerak giro onean


Hilaren 30ean, Ostadar Ipar Martxako kideak kirol elkarteko denboraldi amaierako jaialdiarekin bat egin baino lehen ibilbidetxoak egin zuten Lasarte-Oriako inguruetatik.

Astebete lehenago, aldiz, urteko azken irteeraz gozatu zuten, Irura-Basagain-Billabona. Eguraldi ikusgarria izan zuten 8,5 kilometroko bidea egiteko.



OSTADAR IPAR MARTXA

KOMIKIA



ZORION AGURRAK



June
Zorionak printzesa! 7 urteko magia, irribarreak eta gure familiako gatza eta piperra izateko talentu aparta. Maite zaitugu! Aita, Ama eta Mae



Xuban
Zorionak Xuban!! 8 urte bete dituzu eta jada futbol sareko erregea zara. Sekulako kirolaria, baina are hobea da daukazun bihotz handi hori! Jarraitu gogor entrenatzen, lagunekin jokatzeko eta zeure irribarre horrekin gu hain zoriontsu egiten. Muxu pila!!

SUDOKUA

			7				
		5	2			6	7
3	7				4		
8	4			6			5
5	9			3			
1	2	3	4		5		6
	5	9	6	4			2
6					2		
4			3		7		

Sudoku-online.org

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK

- ERREGISTROA: 943-37 16 29
- EUSKARAKO ZERBITZUA: 943-37 61 84
- KIROLDEGIA: 943-37 61 82
- MANUEL LEKUONA
- KULTUR ETXEA: 943-37 61 81
- GIZARTE ZERBITZUAK: 943-37 61 79
- KIUB: 943-36 16 05
- UDAL EUSKALTEGIA: 943-36 16 21
- MUNTTERI AEK: 607 62 52 33

LARRIALDI TELEFONOAK

- OSASUN ZENTROA: 943-00 79 60
- DYA: 943-46 46 22
- GURUTZE GORRIA: 943-36 39 53
- UDALTZAINAK: 943-36 24 42
- ERTZAINZAK: 943-53 88 40
- SOS DEIAK: 112

Urte askotarako!

Zorion-agurra jartzeko, hiru bide:

- txintxarri.eus-en erabiltzailea sortu eta txintxarri.eus/zorionagurrak helbidean sartu.

- Mezua bidali txintxarri@ttakun.eus helbidera, eta idatzi izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

- Zatoz Ttakunera edo bidali WhatsApp-ez 688 68 35 10 telefonora.

Osteguneko 16:00ak arte jasoko ditugu

IRAGARKI SAILKATUAK

Iragarkia jartzeko

943-37 14 48
publizitatea@ttakun.eus
www.txintxarri.eus/sailkatuak

- Osteguneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak iragarriko ditugu.
- Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.
- TXINTXARRI-k ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

GUARDIAKO FARMAZIAK

LASARTE-ORIA EGUNEZ

OSTIRALA, 5	ACHA-ORBEA
LARUNBATA, 6	LASA
IGANDEA, 7	LASA
ASTELEHENA, 8	KNIESE
ASTEARTEA, 9	KNIESE
ASTEAZKENA, 10	DE MIGUEL
OSTEGUNA, 11	DE MIGUEL

Eguneko Farmaziak: 09:00-22:00

DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943-36 26 52
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943-36 35 49
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943-37 11 51
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943-36 17 74
GIL: Kale Nagusia 24/ 943-36 07 08
KNIESE: Kale Nagusia 71/ 943-36 65 67
GANDARIAS-URIBE: I.de Loyola 9/ 943-01 95 21

GAUEKO FARMAZIA EGUNERO

22:00etatik 09:00etara

CASTILLA-LARBURU farmazia
Urbietza kalea 7, / 94-55 29 41

OHARRA

Soka dantza

San Joan bezperan, sutzarra piztu aurretik, soka dantza egin-go dute eta emanaldi hori prestatzeko entseatzeko hasi direla jakinarazi du ERKETZ EDT dantza taldeak. Hilaren 18ra arte (egun hori barne), ostegunero elkartuko dira Garaikoetxea-Landaberri ikastetxekeo patioan, 19:00etan. Deialdi irekia dela zehaztu dute.

txintxarri

WWW.TXINTXARRI.EUS

Argitaratzailea
Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 Lasarte-Oria
G-20407557

Administraria
Nerea Garziarena.

Erredakzioa
Nerea Eizagirre Etxeberria,
Iñigo Gonzalez Sarobe,
Maddi Noriega Zaldua
eta Lierni Apaolaza
Urdanpilleta.

Publizitatea
Irati Zatarain.

Laguntzaileak
Gorka Lasa, Lierni Rekondo,
Gorka Alvarez, Aizpea
Amas, Maitane Rebe, Jexux
Artebe, Oihane Puertas
eta Pili Ormazabal.

Banatzaitzaileak
Nora Navarro, Aimar
Hernandez, Gari Iraola,
Axier Iraola, Eneko Sanchez
eta Udane Guisado.

Informatika zerbitzuak
IZT Informatika.

Publizitatea
Tel.: 943-37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

Egoitza nagusia
Geltoki kalea, 4
Tel.: 943-37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@ttakun.eus

Inprimategia
Zeroa Multimedia, S.A.
Lege Gordailua:
SS-513/93
ISSN: 1134-0053
Tirada: 8.300 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN EGUERDIRAKO.
943-37 14 48 | 688 86 83 10 | txintxarri@ttakun.eus

OSTIRALA 5

LASARTE-ORIA

- **Jaia** Zabaleta auzoko festetako laugarren egunerako jarduera hauek iragarri dituzte: **17:30etik 18:15era**, aurpegi margoketa eta txokolate jana. **18:20ean**, goxorraketak. **18:45ean**, Teresa Sorgiñari ongiatorria. Horren barruan: jaietako pregoia (Xumela koruko kide diren eta Zabaletan bizi direnei egingo diete aitortza), Jalgune elkarteko emanaldia eta Sorgin Dantza herrikoia. **21:00etan**, helduen afari auzotarra. Norberak eraman beharko du jatekoa eta edatekoa. **22:45ean**, Kukuka eskolako kideek Euskal Dantza Sorkuntza emanaldiak egingo dituzte. **00:00etatik aurrera**, Viafara eta Bele Raven taldeen kontzertuak.

LARUNBATA 6

LASARTE-ORIA

- **Topaketa** Ford etxeko autoen gidarien topaketa egingo dute: **08:30etik 10:00etara**, ongiatorria eta gosaria, Andatza plazan. **10:00etan**, ibilaldia. **Ibilaldiaren ostean eta Michelin lantegian ibilgailuak aparkatu ostean**, hitzaldi batera joango dira, kultur etxera. **12:30-13:00ak aldera**, talde argazkia, Michelinen. **Gero**, Andatza plazan, mokadutxoak. **15:00etan**, bazkaria, Udaberri elkarte gastronomikoan. **17:00ak aldera**, opariren eta zozketako sarien banaketa. **18:30etik 21:00etara**, kontzertuak, Andatza plazan.
- **Jaia** Zabaleta auzoko festetako bosgarren egunerako jarduera hauek iragarri dituzte: **09:00etan**, diana. **11:00etan**, brilet partidak. **11:00etatik 12:00etara**, margoketa tailerra eta txokolate jana. **11:00etatik aurrera**, Xumela koruko eta Earra! bertso eskolako kideek

kantu jira egingo dute auzoan barrena.

- 12:00etan**, auzoko adinekoei aitortza.
- 12:30ean**, sagardo festa.
- 15:30ean**, Joxe Aranzadiren omenezko XVI. Mus Txapelketa.
- 17:00etatik aurrera**, LOZET elkarteko erraldoi eta buruhandien kalejira, dultzaineroekin batera. Auzoan barrena ibiliko dira.
- 17:30etik 20:00etara**, pilota txapelketako finalak.
- 18:00etan**, kontzertuak, Gure Lasarte Zikiña egitasmoa kideen eskutik: Hertx eta Meison taldeek joko dute.
- 21:00etan**, afari herrikoia.
- 23:50ean**, zezensuzkoa.
- 00:00etatik aurrera**, kontzertuak: Auskalo taldea, DJ Fantasia eta DJ Mangel.
- **Literatura** 0 eta 3 urte arteko haurrei eta euren familiei zuzendutako Liburu Baby Kluba egitasmoaren saioa egingo dute euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez. Txikitatik irakurzaletasuna sustatzea da ekimenaren helburu nagusia. Udal Liburutegia, 11:00etatik aurrera.
- **Antzerkia** Haurrei zuzendutako *Txepeldunak* antzezlanaren emanaldia egingo dute. Sarrerek 4, 10 euro balio dute. Manuel Lekuona Kultur Etxea, 17:00etan.

IGANDEA 7

LASARTE-ORIA

- **Jaia** Zabaleta auzoko festetako azken egunerako jarduera hauek iragarri dituzte: **09:00etan**, diana. **10:30ean**, patata tortilla txapelketa. **11:00etan**, Kukuka eskolako taldeen emanaldiak. **12:00etan**, herri kirolak. **13:30ean**, proba mistoa. **14:30ean**, herri bazkaria. **Ostean**, bingo aldrebesa eta emanaldia. **17:30ean**, toka txapelketa. **18:00etatik 20:00etara**, dantza gidatuak Ttipika taldeko kideen eskutik. **20:30ean**, azken traka eta Teresa Sorgiñari agurra.
- **Zinema** Haurrentzako saioan *Super Mario Bros Galaxy* filma emango dute. Sarrerek 4, 10 euro balio dute. Manuel Lekuona Kultur Etxea, 17:00etan.
- **Zinema** Helduentzako saioan *Michael* filma emango dute. Sarrerek 6, 10 euro balio dute. Manuel Lekuona Kultur Etxea, 19:30ean.

ASTELEHENA 8

LASARTE-ORIA

- **Ospakizuna** Kukuka eskolako kideak 24. Antzerki eta Dantza Astea aurrera eramaten hasiko dira. LH1 eta 2. mailetako ikasleek antzerki emanaldiak egingo dituzte. Sarrera, doan (gonbidapenekin). Manuel Lekuona Kultur Etxea, 19:00etatik aurrera.

ASTEARTEA 9

LASARTE-ORIA

- **Literatura** LGTBIQ+ egitarauaren barruan, literatur txokoko kideek Danele Sarriugarte idazlearen *Beste zerbait* eleberria landuko dute. Manuel Lekuona Kultur Etxea, 17:30ean.
- **Ospakizuna** Kukuka eskolako kideak 24. Antzerki eta Dantza Astearekin jarraituko dute. LH3 eta

4. mailetako ikasleek antzerki emanaldiak egingo dituzte. Sarrera, doan (gonbidapenekin). Manuel Lekuona Kultur Etxea, 19:00etatik aurrera.

ASTEAZKENA 10

LASARTE-ORIA

- **Literatura** Sandor Marai idazlearen *El último encuentro* eleberriaz ariko dira Monica Leivak gidatutako solasaldian. Manuel Lekuona Kultur Etxea, 18:00etan.
- **Ospakizuna** Kukuka eskolako kideak 24. Antzerki eta Dantza Astearekin jarraituko dute. LH5 eta 6. mailetako ikasleek antzerki emanaldiak egingo dituzte. Sarrera, doan (gonbidapenekin). Manuel Lekuona Kultur Etxea, 19:00etatik aurrera.

OSTEGUNA 11

LASARTE-ORIA

- **Ospakizuna** Kukuka eskolako kideak 24. Antzerki eta Dantza Astearekin jarraituko dute. *Umezurztegia* eta *Toc Toc* antzezlanen emanaldiak egingo dituzte. Sarrera, doan (gonbidapenekin). Kultur etxea, 19:00etan.

OSTIRALA 12

LASARTE-ORIA

- **Ospakizuna** Kukuka eskolako kideak 24. Antzerki eta Dantza Astearekin jarraituko dute. Sorkuntza saioa egingo dute. Sarrera, doan (gonbidapenekin). Manuel Lekuona Kultur Etxea, 19:30ean.

LARUNBATA 13

LASARTE-ORIA

- **Literatura** 0 eta 3 urte arteko haurrei eta euren familiei zuzendutako Liburu Baby Kluba egitasmoaren saioa egingo dute euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez. Txikitatik irakurzaletasuna sustatzea da ekimenaren helburu nagusia. Udal Liburutegia, 11:00etan.

- **Ospakizuna** Kukuka eskolako kideak 24. Antzerki eta Dantza Astea itxiko dute jarduera hauekin: **12:00etan**, kultur etxean, Euskal Dantza Sorkuntza. **14:00etan**, Okendo plazan, bazkaria. Sarrerek salgai daude Jaldi eta Ilargi tabernetan; umeen tiketek 12 euro balio dituzte, eta helduenek, 15 euro. **Eta bazkalostean**, dantzaldia.
- **Kontzertua** Semblante Andaluz elkarteak 31. Rocioko Erromeriaren aurreneko eguna aurrera eramango du Atsobakarren: **12:00etan**, irekiera. **13:30ean**, funky emanaldia. **14:30ean**, bazkari herrikoia. **16:30ean**, Concha Rociera koruaren emanaldia. **17:30ean**, Embrujo Andaluz-en emanaldia. **18:00etan**, runba eskola, Amaia Gonzalez Caballeroren eskutik. **19:00etan**, Asier eta Nerearen emanaldia. **19:30ean**, dantza talde ugariaren emanaldiak. **20:30ean**, DJ Ina-ren emanaldia.
- **Kontzertua** Kurtsoa itxeko kontzertua emango du Albokak. Sarrera, doan. Ama Brigitarren komentua, 19:30etik aurrera.

IGANDEA 14

LASARTE-ORIA

- **Ospakizuna** Semblante Andaluz elkarteak 31. Rocioko Erromeriaren bigarren eguna aurrera eramango du: **11:30ean**, meza rozieroa, Arantzazuko Ama parrokian. **12:30ean**, Rocioko Ama Birjina Atsobakarrera eramatea, elizatik abiatuta. **14:00etan**, ohorezko ardoa. **14:30ean**, bazkari herrikoia. **16:30ean**, dantza taldeen emanaldiak. **17:00etan**, Aljarafe eta Alborea-ren emanaldiak. **17:30ean**, Duende taldearen emanaldia. **18:00etan**, Semblante Rociero koruaren emanaldia. **18:30ean**, dantzaldia. **20:00etan**, errifen zozketa eta sari banaketa. **20:30ean**, Rocioko Ama Birjinari agurra. **21:00etan**, festa amaiera.



TXINTXARRI

LASARTE-ORIA Topaketa

Ford etxeko ibilgailu klasikoek topaketa aurrera egingo du Clasicos por España-k. 08:30ean hasiko dira Andatza plazan gidaiei ongiatorria eta gosaria ematen; horren ostean, ilundu arte luzatuko diren jarduera ugari aurrera eramango dituzte. Autoren baten jabe izan ala ez, ekitaldi irekia dela ohartarazi dute.

txintxarri




San Pedro Jaietako zenbaki bereziak ekainaren 19an eta uztailaren 3an

Deskontu
bereziak
herrikoentzat!

Zure komertzioa bertan iragarri nahi duzu?

Eskatu tarifak: publizitatea@ttakun.eus | 646 82 44 66

Patxintxi sariak 2026



- Zuretzat, nor da pertsonarik goxo eta maitagarriena?

.....

- Nola jarri gaitzke berarekin harremanetan?

.....

Zure izena eta kontaktua:.....

itsatsi zure
hautagaiaren
argazkia

Zuzenean
igotzeko:



Patxintxi sariak 2026

65 urtetik gorako
pertsona maitagarri eta goxoenak

**Bidali zure hautagaiak
ekainaren 14ra arte**

Ttakuneko bulegoan,
kultura@ttakun.eus-era, 695 78 53 89,
Ttakuneko sare sozialetara
labur.eus/patxintxisariak2026

Sari banaketa San Pedroetan!

Lasarte-Oria “eremu tentsionatu” izendatzea, etxebizitza turistikoak geldiarazteko.

Etxebizitza eskuratzeko arazoa
konpontzeko, **Euskadik plan bat du.**

**ETXEBIZITZA
ESKURATZEKO
EUSKADIKO
PLAN
INTEGRALA.**

#EUSKADIBERRIA



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

ETXEBIZITZA ETA
HIRI AGENDA SAILA
DEPARTAMENTO DE VIVIENDA
Y AGENDA URBANA



eremutentsionatua.euskadi.eus

